PETROLIOA. Kuota ofiziala eta produkzio egiazkoa 23 milioi upelekoa izango da 2003an

LPEEk 1,5 milioi upel gutxituko du petrolio eskaintza, prezioei eusteko

Kuota ofiziala %6 handitu du, ordea, eskaintza errealera egokitzeko

Agentzia | **VIENA**

Lurralde Petrolio-Esportatzaileen Erakundeko (LPEE) kideek urtarriletik aurrera produkzio kuota ofiziala %6 handitzeko hitzarmena lortu zuten atzo. Hala, lurralde horien produkzio ofiziala eguneko 23 milioi upelera iritsiko da datorren urtean. Erabaki horrek, ordea, egiazko petrolio eskaintza 1,5 milioi upel gutxitzea ekarriko du, LPEEko kideek benetako petrolio eskaintza kuota ofizialera lotzea ere erabaki dutelako.

Produkzio ofiziala eta egiazkoa lotzeko erabaki hori atzoko bileraren aurretik hartu dute LPEEko hamar kidek —Irakek ez beste guztiek—, Saudi Arabiak, munduko ekoizle nagusiak, hala proposatuta. Izan ere, LPEEren egungo produkzio kuota ofiziala 21,7 milioi upelekoa den arren, egiazko petrolio eskaintza 2,3 edo 3 milioi upel handiagoa da nazioarteko merkatuetan.

Hemendik aurrera, berriz, produkzio kuota ofiziala 21,7 milioi upeletik 23ra gehituko da, eta eskaintza erreala ere kopuru horretara jaitsiko da, 1,5 milioi upel gutxituta. Hala, erakundeak sinesgarritasuna berreskuratu eta merkatua egonkortzea lortu nahi du, prezio jaitsierak eragozteaz batera.

LPEEk aurtengo martxoan erabaki zuen petrolioaren prezioa upeleko 22 eta 28 dolar bitartekoa izatea, batez besteko prezioa 25 dolarrekoa izan dadin. Helburu horri eutsi egin nahi diote orain LPEEko lurraldeek, gehiegizko eskaintzak edo Iraken aurkako gerra batek prezioetan eragitea eragotziz.

Petrolioaren bilakaera

ATZO 19:30etan

Ekialde Hurbileko krisiaz gain, LPEEk Venezuelako egoera ere izan zuen aipagai atzo, Venezuela ere munduko petrolio ekoizle nagusietakoa baita. Lurralde ekoizleetako ministroek Venezuelako gobernuaren eta herriaren aldeko aldarrikapena onartu zuten, eta Petroleos de Venezuela (PDVSA) enpresari «behar duen laguntza guztia emateko» prest azaldu ziren, «merkatuan dituen konpromisoak bete ahal izateko».

LABURREAN

Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataformako kideek protesta egin dute Eusko Jaurlaritzaren aurrean

Justizia soziala aldarrikatzeko, protesta ekintza berezia egin zuten atzo Gasteizen Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataformako kideek. Eusko Jaurlaritzaren aurrean elkarretaratzea egin zuten, biluzik. Haien hitzetan, Jaurlaritza behar baino gutxiago ahalegintzen da bazterketa sozialari aurre egiten, eta aurrekontuetan horretarako bideratzen duen diru kopurua ez da nahikoa. Horregatik, «herritar guztientzat bizi-baldintza duinak lortzeko ahalegina egiteko» eskatu zioten atzoko protestan.

Saenz de Samaniego Europako Batzordeko Arrantza zuzendariarekin bilduko da erreformaz hitz egiteko

Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Nekazaritza sailburu Gonzalo Saenz de Samaniego Europako Batzordeko Arrantza zuzendari nagusi Jorgen Holmquistekin bilduko da gaur Bruselan, Fischlerrek proposatutako erreformaren inguruan hitz egiteko. Jaurlaritzak jakinarazi duenez, ontziak berritzeko diru laguntzak kentzeko asmoa bertan behera uzteko eskatuko dio Samaniegok Hormquisti. Datorren astean hasiko den Arrantza Kontseiluaren aurretik Samaniegok egingo duen azken ahalegina izango da. Asteartean hasiko da bilera hori, eta han erabaki beharko da Fischlerren proposamena onartu ala ez.

Bizkaiko eta Gipuzkoako ogasunek ere %48ra jaitsi dute PFEZren goreneko tasa

Arabako Foru Aldundiak egin bezala, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak ere %50etik %48ra jaitsi dute PFEZren goreneko tasa. Gutxieneko tasa, berriz, %17tik %15era jaistea hitzartu dute EAEko ogasunek. Aldundi horietako iturriek adierazi dutenez, «irabazi gutxien duten herritarrei egingo diete mesede handiena» jaitsiera horiek. Oso bestela pentsatzen du, ordea, EB-IU alderdi politikoak. Bizkaiko Aldundiko diputatu Raquel Modubarrek azaldu duenez, neurriokin «ahulenekiko elkartasun falta erakusten dute EAJ eta EA alderdiek zuzendutako aldundiek». Haren hitzetan, «PPren neurriak kopiatu besterik ez dute egiten».

HAUTESKUNDEAK

LABek hautetsi bat lortu du Baionako Bitartekaritza Ganberan

Aitor Renteria | **BAIONA**

Bitartekaritza Ganberako hauteskundeetara aurkeztu den lehen aldian, LABek ezustekoa eragin du Ipar Euskal Herriko egituraketa sindikalean. Bozen %8,8 eskuratu eta laugarren indar sindikala izateaz gain, LABek ordezkari bat erdietsi du Baionako Bitartekari Ganberako merkataritza sailean.

«Orain eremu berri bat zabaltzen zaigu, eta emaitza hauek modua eman digute gure xedea indartzeko Ipar Euskal Herrian», erran zuen Irene Ithursarri LABeko kideak. «Engoitik, bertze sindikatuek solaskidetzat hartu beharko gaituzte; bozen bermea dugu, eta kontuan hartu beharko dute». Zuberoako hautesbarrutia Biarnokoarekin nahastu izana salatu zuen LABek.

Aldaketa guti

LABek emandako ezustekoaz gain, hauteskundeek ez dute eragin aldaketa handirik. CFDT da Ipar Euskal Herriko lehen indar sindikala lau sailetan. Industria sailean bigarren ageri da, CGTtik puntu bakar batera. CFDTk bozen %33,5 eskuratu ditu, CGTk %26,29, eta FOk %16,91.

Sindikatuek salatu zuten langile anitzek trabak izan zituztela boza emateRakoan. CGTk, berriz, tamalgarritzat jo zuen «ordezkaritzarik ez duten indar sindikal berriak agertzea, enpresetako eguneroko ekimenetan deus frogatu ez dutenak».

BURTSA. EBZren aurreikuspenek galerak eragin dituzte indizeetan

Duisenberg doktorea

J. B. Andueza |

Irabazien bidetik zihoazen azken bi egunetan indizeak azken berriekin, baina halako batean Duisenberg doktorea etorri da, termometroa jarri dio euroaren eremuko ekonomiari, eta 2003an aurten bezain hazkunde apala izango dela ondorioztatu du. Horrek eta enpresen gainko albiste kezkagarriek hodei beltzak ekarri zituzten Europako burtsetara. Arriskua neurtzeko, enpresek abisu bana pasa die Endesa (-%6) eta Commerzbank-i. Ibex-35ak ia %2 galdu zuen. Atzo 1.520 milioi euro mugitu ziren, eta Telefonicak (-%2,4) mugitu zuen diru gehien. Zeltia eta Inditex-ek baino ez zituzten irabaziak izan.

DATUA

Vivendi Universalen (-%2,3) egoitza nagusia eta Jean Marie Messier presidente ohiaren bi etxe ikertu zituen Poliziak atzo. Akziodun txikiek salaketa aurkeztua dute, benetako egoera ezkutatzea leporatuta. Epaileak kontabilitate dokumentuetan interesatuak daude.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **-%1,68** | Azken indizea **1.135,05** | Aurreko indizea **1.154,43**

Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	8.529,29 (+%0,17)
Tokio (Nikkei)	8.708,69 (-%0,22)
Madril (IBEX-35)	6.251,60 (-%1,88)
Paris (CAC-40)	3.137,43 (-%1,65)
Londres (FTSE 100)	3.935,3 (-%1,00)
Frankfurt (DAX)	3.111,88 (-%2,63)
Milan (Mibtel)	17.892 (-%1,07)

* *Eguerdira arte*

Dibisen merkatua

Euro bat

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	1,0156
Libera Esterlina	0,6437
100 Yen (Japonia)	1,2455